




238. zenbakia

• MARTXOA 2024 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



EURIAZ

euria izateko ikasi:
arnasa
lurrun
landura izan aurrena
eta ohartu ez,
tanta baten baitan hazi eta
tanta-herri bateko tanta bilakatu gero,
hoztu ahala
onenean izar izatera etorri
edo mulko dardaratien tribuko
hodei zurixketan,
aire isilaren beso artean
astiro piririka erori,
haur baten ilajea trabatu eta
azkenean harridura espazio bat busti

euria egiten bizi
euria egiten bizi



Jose Luis Otamendi, Landura (2022)

Hautatu



komunikazioa

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA
KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA
Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA
pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK
Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarte, Isabel Oiartzun, Lourdes Iraizotz eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK
Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA
1.700 ale

INPRIMATEGIA
Gertu

MAKETAZIOA
Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA
Lanzko ihoteak. Amaia Urdaniz aritzuarrak egina.

LEGE GORDAILUA
NA 721/93

Inprimategira martxoaren 13an bidalia

AURKIBIDEA

04	Gaurko gaia. Nekazarien protestak
08	Kronika. Denok bat
10	Ingurumena. Polinizazioa
11	Berezia. AEK
12	Albisteak.
15	Ekimenak. Palabra y Fonda mintegia
16	Erreportajea.. Bizi-testamentua
20	Gure historia.. Eltzaburuko maisua
22	Ardo Frexkoa.. Zuzentzen ziguten eta zuzendu gintuzten
24	Aspaldiko Kontuak. Gamazada
27	Herrian bertan. Gaztaburua
28	Kirola. BRT Menditarrak, neskak
	
32	Zer irakurri. Martxoa
30	Zer ikusi amezti.eus-en
34	Jaiotzak eta heriotzak. Urtarrila

Nekazarien

protestak

Traktoreen mobilizazioak eta nekazari txikien isildutako aldarriak... zerk eragin du presio eltzea dirudien koktel hau?

Nekazari eta abeltzainen protestek aspaldian ikusi gabeko protagonismoa hartu dute azken hilabeteotan han-hemen. Traktore ilarak ikusi ditugu hiri sarreretan blokeoak eragiten eta errepideak ixten. Baina, zarata mediatikotik harago, zeintzuk dira protestetan parte hartu duten nekazarien aldarriak eta eskakizunak? Eta, zergatik erabaki dute ekoizle agroekologikoen elkarte askok mobilizazioekin bat ez egitea? Zer errealitate eta eredu desberdin ditugu 'nekazaritza' edo 'lehen sektorea', txapel ustez bateratu horren baitan?

Frantziako estatuan hasi ziren protestak beste hamaika txokotara zabaldu dira azken hilabeteotan, baita Euskal Herrira ere. Batik bat whatsapppe zabaldutako deialdien bidez antolatu dira mobilizazioak, eta tokian tokiko kutsu eta aldarri propioak hartu ditu horietako bakoitzak. Erreportaje honetan, Nafarroan zentratuko gara, eta horretarako, gure inguruko zenbait ekoizlerekin elkartu gara, haien ikuspuntua eta eskakizunak jasotzeko.

Gotzone Sestorain leitzarria Habelarte baserritar agroekologikoen elkarteko kidea da. Nafarroako Mendialdeko taldea da Habelarte, eta gure eskualdeko zenbait ekoizle ere parte hartzen du bertan, Goldarazko Josean Iturraldek kasu. EHNE sindikatuko kide ere bada Iturralde. Eredu txiki eta iraunkorrean ari diren bi artzainen hausnarketak eta sentsazioak jaso ditugu erreportajearen lehen zatian.

Ondoren, Oier Villanuevarekin eta Julen Ancizurekin izandako elkarrizketa erreportajearen bigarren zatiko elkarrizketan.

“Gurekin zerikusirik ez duen zerbait dira protesta hauek”

Gotzone Sestorainen hitzak dira. Protesta egiteko arrazoirik ez zaie falta nekazari eta abeltzainei, horrekin ados dago Leitzako artzaina, eta are gehiago nekazari txikien kasuan. Baina, 'traktoradak' eta azken hilabeteotako mobilizazioak antolatzeak moduarekin eta zabaldu dituzten aldarrikapen askorekin ez dator bat. “Hasteko, kontuan eduki behar da whatsapp taldeetatik sortu dela mugimendua, eta talde hauek sortzerakoan pertsona konkrituak aukeratu dituztela, ez dute edonorengana jo, ez dira guztiz irekiak izan”, azaldu du.

Protestak deitzeko erabili diren mezu askotan sakontasun falta ere sumatu dute. “Mezu ‘popurri’ bat dago, hasi ingurumen-neurrien kontrakoetatik, nekazarien errentagarritasunarekin zerikusia dutenetara, burokraziari lotutakoetara... Oso aldarrikapen desberdinak sartu dituzte nahasian, koktelera moduko zerbait da”, dio Sestorainek.

Baina, zergatik dio ‘haiekin’ batere zerikusirik ez duten mobilizazioak izan direla neurri handi batean? Nortzuk dira ‘haiek’? Bada, nekazari eta abeltzaintxikie, agroekologikoan edo eredu iraunkorrako batean ari direnez ari da Sestorain. Izan ere, mobilizazioetan haien ahotsak apenas entzun dira, eta protestetako aldarrikapenetako batzuk haien ikuspuntuarekin talka egiten dute gainera. “Ingurumen-neurriei dagokienez, Agenda 2030en helburuekin ez datoz bat, eta gu ez gaude ados horretan atzera egitearekin”, azaldu du. Pestiziden erabilera %50 murriztea da planaren erronketako bat, beste askoren artean. Europako Baserriatik Mahaira estrategiaren baitan ere, neurri interesgarri zenbait planteatu dira artzainaren ustez, lugorria edo barbetxoa eta laboreen errotazioa nahitaezkoak izatea, adibidez.

Kanpoko produktuei mugak jartzeko neurri eskaeretan ere kontraesan nabarmenak agerian gelditu dira artzainen ustez; izan ere,



Traktoreak Iruñean



kanpokoari mugak jartzea eskatzen den bitartean, ez da zalantzan jarri bertako ekoizpena kanpoko merkatuari begira antolatzea. "Nazioarteko merkataritza askeko hitzarmenekin, horiekin amaitu beharra dagoela diogu guk", gehitu du Sestorainek. Nekazaritza eta abeltzaintza tokiko beharrak asetzeraz bideratu beharra dago elkarteko kidearen ustez, eta horren arabera antolatzea.

Baina, honen inguruan protestetan ez da hitzik egin, eredu oso desberdinetako ekoizleak batu baitira, tartean nekazari handiak eta agroindustria bera ere bai. "Horregatik diogu sekulako koktela dela, oso zaila delako bereiztea zer dagoen hor barruan, jende asko erakarri dutelako". Bide berean, ereduaren inguruan kritikarik ez egotea akats bat izan da Iturraldearen ustez ere. "Protestetan nahasketa handi bat egon da, baina kontuan izan behar da ekoizle guztiak ez garela berdinak, produkzio modu oso desberdinak daudela. Nekazaritza Politika Bateratuak —NPB, gazteleraz PAC delakoak— denoi eragiten digu, baina ez modu berean", nabarmendu du.

Europatik bultzatu den eredu produktibistaren porrotaren isla?

Baina, zer dela eta izan dute mobilizazioek hainbeste nekazari eta abeltzain erakartzeko gaitasuna? Erantzuna argia da, bi ekoizleen ustez: eredu handian nahiz txikian, nekazari eta abeltzainen nekea eta ezinegona oso handia da aspalditik, eta nonbaitetik lehertu beharra zuen egoerak. "Urte asko daramatzagu bizkar gainean sekulako zamarekin, prezioak ez direlako behar bezalakoak, produkzio kostuetatik behera ordaintzen zaigulako askotan, sekulako espekulazioa dagoelako..." dio Sestorainek. Egoerak okerrera egin du azken urteotan, eta bizirautea bera zail zaie askori.



▲ Gotzone Sestorain, Leitzako gaztagilea eta Habelarteko kidea

Arazoaren muina, ordea, ez dago neurri edo arazo konkretu batean, bi ekoizle txikien iritziz, azken hamarkadetan bultzatu den eredu eta sistema osoan baizik. "Europatik eredu guztiz produktibista bultzatu da, diru-laguntzak horretara bideratuz, eta nekazari eta abeltzainak eredu handi horretarantz joan dira orokorrean", dio Sestorainek. Ekoizle goldaraztarrek ere bat egiten du irakurketa horrekin, eta gehitu du, azken urteotan zenbait neurri iraunkor berreskuratu nahian ari direla *Baserritik mahaira* bezalako ekimenen bidez, baina horiek 'partxe' hutsean gelditzen direla, ez dutelako errotiko eraldaketarik planteatzen.

NPBren kasuan ere, horixe bera da logika: nekazariei ordaintzen zaizkien prezio baxuak medio, NPBen diru-laguntza ahalik eta handiena jasotzen saiatzen dira. Alegia, soldata norbere produktiotik atera beharrean, diru-laguntzetatik ateratzea, edo behintzat, horrekin osatzea. "Horrek egoera oso bihurriak sortu ditu, besteak beste, lurrak nekazari eta abeltzain handien eskuetan pilatzea ekarri baitu", dio Sestorainek. Sistema horrek berak zorpetze maila altua ekarri du, eta behin gorpil zoro horretan sartuta... ez da erraza handik ateratzea.



▲ Ekollaondo proiektuko ekoizlea da Josean Iturralde goldaraztarra

Errentagarritasunari eta burokraziari dagokienez, adostasunerako tartea

Aipatutakoan desados egon eta protestetako puntu asko kritikatu arren, mobilizaziook izan dute alde positiborik ere, bi ekoizle txikien ustez. Behintzat, nekazari eta abeltzainen ezinegona lehen lerroa ekarri izana baloratzen dute, eta jendartea haien egoeraren inguruan hausnartzera bultzatu izana ere bai. "Egin diren zenbait ekarpenekin bat nago. Egia da burokrazia karga handia dugula, eta horretan txikiok handiei bezalaxe eskatzen zaigu: paper kontuak, aplikatu beharreko neurriak... laguntzak jasotzeko sekulako presioa dugu, eta laguntza horien menpe egoteak ez digu askatasuna ematen. Alderantziz, menpeko bihurtzen gaitu, eta menpekotasunak sekulako nekea dakar", dio ekoizle goldaraztarrek.

Sestorainek ere burokraziaren sinplifikazioaren puntu horretan adostasuna badagoela dio, eta elikadura katearen legearenean ere bai. "Nabardurak egon arren, badira orokorrean ados gauden puntuak: elikadura katearen legearen kasuan, adibidez, ados gaude kontrol sistemak jartzearekin".

Nekazarien

protestak

“Prezio duin eta egonkorrak, horixe da gure aldarrikapen nagusia”

Esne-behien ukuiluak dituzte Oier Villanueva eta Julen Ancizu gazte ultzamarrek. Lehenak Auzan du ukuilua, 300 buru ingururekin ari dira lanean bera, bere bazkidea, eta beste hiru lagun. Bigarrenak, berriz, Urritzolan du jezteko ukuilua eta Lizason kumeen hazkuntzakoa; guztira 670 animalia dituzte, eta hiru sozio eta bost langile ari dira lanean. Villanueva EHNE eta UAGN sindikatuetaiko kide da; Ancizu, aldiz, ez dago inon sindikatuta, baina azken asteotako mobilizazioetan aktiboki parte hartzen ari da.

Zerk bultzatu zaituztete azken asteotan kalera ateratzea? Zergatik erabaki duzue mobilizazioekin bat egitea?

O: Bizi osoa krisian daramagu guk, eta hau duela 40 urtetik behar genuen indar erakustaldia da. Orduan hasi ziren ekoizpen bat bestearen atzetik kentzen, produktuek ez dutelako beharko luketena balio, errentak oso baxuak direlako... beti negarrez ari garela diote, baina horrelako bultzada baten beharra genuen. Urteak daramatzagu gaizki, baina geroz eta baldintza eta betekizun gehiago jartzen dizkigute.

J: Azkenean, ezin iritsiz gabiltza, eta horri gehitu beharra zaio karga burokratiko ikaragarria. Baina, oinarri-oinarrian, gure aldarrikapen nagusia prezio duin eta egonkorrena da, irabazi marjinak mantentzea ahalbidetuko diguna, sortzen doazen araudi berriei eta karga burokratikoiei aurre egin ahal izateko.

O: Prezio baxuen bidez eredu oso zehatzera bultzatu gaituzte, nahitaez gure gain hartu behar izan duguna. Izan ere, zenbat eta prezio baxuagoak, handitzera eramán gaituzte, ia nahi gabe, edo ohartu gabe...

J: Bai, gure lana industrializatzeko inertzia horretan sartu gara, irabazien marjina oso txikitara

joan garelako, eta irabaziak handitzeko aukera bakarria bolumena eta produkzioa handitzea izan delako.

Nondik sortu da mobilizazioetarako deia, zeren, sindikatuetatik kanpo sortu dira, ezta?



Esnetarako behien ukuiluak dituzte Anzizuk eta Villanuevak Ultzaman ▲



J: WhatsApp talde bat sortu zen Nafarroan, batik bat Frantzia gertatzen ari zenak bultzatuta. Ikusten genuen han topera ari zirela, gauzak lortzen ari zirela... eta gu, hemen, ezer egin gabe!

O: Bai, hango olatua honaino iritsi zen. Hasieratik esan dut nik, olatu hau duela 30 urte iritsi behar zen. Hala izan balitz, gauzak beste modu batean izanen lirake orain. Baina, orain arte, ez dugu askotan lortu horrelako mobilizazio orokorrik, edo sektoreka joan gara... Eta, negoziatioetan, ez dugu batere boterarik izan, ez industriarekin, ez administrazioarekin. Oraingoan nekazaritza sektore osoa batzea lortu dugu eta soinu handia egin dugu. Baina, bai, guztia nahiko modu espontaneoan sortu zen.

Ekoizle txikiek diote 'koktail' moduko bat izan direla mobilizaziook, oso jende desberdina bildu dutela...

J: Bai, egia da gauza asko nahasi direla. Eta, egonen dira alderdiak medailatxo jarri nahiko dutenak, eta mezu populistekin dabilzanak, nolabait egoera aprobetxatuz. Baina hori ez da mugimenduaren oinarria.

O: Bai, beti gehien oihukatzen duena entzuten da, eta badirudi profil horretara mugatzen direla protestak, baina gehiengo ez gara 'guztiaren kontra' doazen horietakoak... Uste dut gehienok ados gaudela ingurumen neurriak eta bestelakoak betetzearekin, baina, agian, beste modu batean egin daitezkeela planteatzen dugu.

Hain zuzen, sektore askotatik kritikatu zaizue ingurumen neurrien eta Agenda 2030en kontra jo izana...

O: Bai, baina errealitatea da urteak daramatzagula eskatzen zaizkigun neurri horiek gure jardueran txertatzen. Beti eskatu zaizkigu kontrol asko, eta egokitzen

joan gara, hori ez da arazo bat, jardueraren parte da.

J: Hori da, ezinezkoa zaigu %100 sostengarria den aktibitate bat izatea, baina horretarako beharrezkoak diren azpiegiturak ez direlako ere bada, 80. hamarkadatik eredu produktibo bat bultzatu delako, baina atzetik dirurik gabe, babes ekonomikorik gabe. Beraz, irabazien marjina txiki hori izateko hazten zara, baina benetan zure instalakuntzak hazten ari zaren tamainara egokitu gabe. Horrek arazo asko ekarri dizkigu gaur egun purinen kudeaketan eta bestelakoetan.

O: Orain atzera egitea ezinezkoa da, baina duela 30 urte hasi izan balira esneak balio zuena ordaintzen, gaur egun ustategiek 15, 20 edo 40 behi izanen lituzkete asko jota, txikiagoak lirake, guztiok lasaiago biziko ginateke... eredu txikiagoak eta gehiago izanen lirake, aberastasun gehiago, eta banatuago. Baina, urteotan guztia kontzentratzen joan da.

J: Nik uste dut gauzak ongi azaldu beharra ditugula: pestizida batzuk baztertu beharra baditugu, ekoizpenaren zati bat txikitu egingen da. Beraz, neurri hori ez badoa prezioen igoera batekin lagunduta, abeltzaina porrotera kondenatzen ari zara. Nahitaezkoa da neurri horiek aplikatzen hasi aurretik gure sektorean irabazi gehiago izateko baldintzak sortzea. Alegia, ingurumen neurri horiek prezioen igoera batekin uztartzea. Modu horretan, gure ustategiak txikitzeo aukera izanen dugu itxi beharrik gabe, eta lanean segitzeko aukera izanen dugu gutxiago kutsatuz.

Kanpoko produktuei mugak jartzea exigitu bitartean, kanporako ekoizten segitu nahi izatea eta merkataritza askeko itunak zalantzan ez jartzea ere kritikatu izan zaio mugimenduari. Zer esanen zenukete?

“ Duela 30 urte hasi izan balira esneak balio zuena ordaintzen, gaur egun ustategiek 15, 20 edo 40 behi izanen lituzkete ”

O: Egia da Espainia fruta, barazki eta txerri esportatzailea dela, besteak beste. Esaten da, nolabait, industriako hitzarmenak dituela Europak Hegoamerikarekin eta beste herrialde batzuekin: 'guk produktu industrialak saltzen dizkizuegu' —eta hori batik bat Alemaniak eta Frantziak egiten dute—, eta zer bidaliko dute besteek Europara? Bada, elikagaiak... Egia da Madrilen Europar Batasunaren egoitzara joan direla protestak egitera, baina, bai, denera ere ezin gara iritsi.

J: Bai, nahiko aldrebesa da dena: Espainiako super batean erosten duzu zerbait, Polonian hazia, Herbehereetan akabatua eta eraldatua... globalizoaren kontuak dira. Agian, protesta hauetako antolakuntza nahiko desantolatua izaten ari da, hain espantoneki sortu dena ordenatzea zaila delako. Leherketa gertatu da, "nahikoa da, horrela ezin dugu jarraitu" esan dugu. Orain, gauzak ordenatu egin beharko dira...

Mobilizazioekin segitzea da asmoa?

J: Bai, benetan aldaketak lortu arte jarraitzea da ideia. Hala ere, nik uste dut benetan lortu beharrekoa herritarren babesa dela. Jendeak ohartu beharra du abeltzainik gabe laborategiko haragia eta barazkiak jango dituela. Horretarako prest al gaude? Jendeak egin beharreko galdera da.



Denok Bat

elkartea

Euskaldunen historia zati bat ikasi dugu, Donostiako Aquariumean

Azkenekotik gaurkora egindakoari buruz ariko gara kronika honetan. Deleatuekin egindako bileraz eta azken txangoetaz, hain zuzen ere.

Otsailaren 15ean delegatuekin bildu ginen, azken urte hauetan egiten dugun bezala, gure barneko funtzionamenduari errepasotxo bat emateko eta batez ere delegatuen lana eskertzeko, beraiek baitira elkarteari funtzionarazten diotenak.

Bazkideei buruz ere hitz egin zen, urtero bezala nola batzuek utzi eta beste batzuek sartzen diren elkartean, ohiturazko berrikuntzan. Datorren alean, datuak zehaztu ondoren, agertuko ditugu, zenbat garen, generoz eta adinez sailkaturik.

Otsaileko txangoan, aurreratu bezala Donostiako Aquariuma ikustera joan ginen, bi autobusetan. Paseo berrian utzi ziguten, Aquariumetik nahiko hurbil, baina haizea indartsu zebilenez gure ileak eta gorputzak "dantzari" jarri zituen.

Aquariumean, Ainize Mitxelena, Sagardun partzuergoko langilea, izan genuen lagun eta erakusle. Berak kontatu zigun ze garrantzia izan zuen sagardoak, euskal marinelak egiten zituzten bidai luzeetan, baleak ehizatzen Kanadaraino joaten baitziren XVI. Mendean. Garai hartan bitamina "C" eramateko era bakarrenetakoa zuten eta hori gabe ezin joan, eskorbutu gaitzak garbituko zituelako.

Red Bay, Badia Gorria, Labradorreko (Kanada) arrantza-herri ezaguna da. 1530 eta XVII. mendeen artean euskal ehizagune garrantzitsua izan zen. Balea badia deitzen zioten euskaldunek. Lau galeoi europarrak, tartean euskalduna, San Juan izenekoa, eta hainbat txalupa aurkitu dituzte hango uretan. Baita garaiko hilerri batean orduko 140 gorpu ere. Bere izena, gorria, Ainizen esanetan, euskaldunek, urtero, teilek badiari ematen zioten koloretik omen dator.





Aquariumean, lau solairuetan egindako ibilbidearen ondoren, alde zaharrera joan ginen, han zer zegoen ikustera. Han ere badira leku ikusgarriak. Ordua iritsi zenean autobusa hartu eta bazkaltzera abiatu ginen, Astigarraga aldera, oraingoan sagardotegira.

Hamarreko mahaietan jarri gintuzten, kupeletatik nahiko hurbil sagardo bila joateko, nahiz, beste askotan bezala, pitxerrak ere bazeuden mahaikideentzat sagardoa ekartzeko, aldiro zutitzen ibili beharrean.

Mahai berean zerbitzatu ziguten kafea ere, solasaldi patxadakoa egiteko aukera emanez. Batzuek mus saioa egin zuten, ostiraleko txapelketarako taktikak prestatzen edo, ...

Bazkari bitartean bota zuen euri zaparrada gelditu zenean atera ginen autobusetara, etxerako bidea egiteko, beste behin elkarrekin pasatako egun zoragarriaz gozatuz.

Hurrengo txangoa Bilbo aldera egien dugu. Datorren alean kontatuko dizuegu zertan joan den. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



**Denok Bat
Jubilatuen Elkarte**





Naturan izugarrizko garrantzia izan arren, arriskuan da

Fruituak eta haziak sortzen dira haren eraginez. Askotan, animalien eta intsektuen bidez egiten den prozesua da, eta elkarrekiko ezinbesteko beharra dute. Bata desagertzen bada besteak ere desagertuko dira.

Lorea duten landareetan gertatzen da. Izan ere, polinizazioa polenak estaminatik pistilora egiten duen bidea da eta, polinizazioaren ondorioz, fruituak eta haziak sortzen dira.

Polena zabaltzeko modu nagusiak bi dira:

1.-Uraren eta haizearen bidez:

Polinizazio mota hau duten landareen loreak ez dira oso nabarmenak, ez baitute intsekturik erakarri behar, eta polen ugari ekoizten dute.

2.- Animalien bidez, batez ere, intsektuak:

Erleak, listorak, tximeletak, euliak... izaten dira, gehienbat, polena zabaltzen laguntzen duten intsektuak. Erleak eta erlemandoek gorputz iletua dutenez oso egokiak dira polena jasotzeko eta zabaltzeko. Polinizatzaile animaliak dituzten landareek lore ederrak dituzte, eta, gainera, sustantzia azukreduna, nektarra, eta usaina ere. Hauek polen gutxi sortzen dute. Badira loreak intsektu itxura dutenak, horretaz baliatzen dira intsektuak erakartzeko, Orkidea batzuen kasua da hau, adibidez.

Polinizazioak erakusten digu landareak eta animaliak bata bestearekiko duten beharra. Bat desagertzen bada, bestea ere bai. Polinizatzaile asko desagertzen ari dira eta horrek galera asko sor dezake nekazaritzan.



▲ Orkidea batzuen kasuan loreak intsektu forma dauka, horiek erakartzeko

Polinizatzaileen desagertzearen kausa batzuk:

- Habitata galtzea
- Parasitoak eta gaixotasunak
 - Espezie inbaditzaileak
 - Pestiziden erabilera
- Nekazaritza intentsiboa



Zer egin dezakegu guk?

- Produktu ekologikoak kontsumitzea
- Gure baratzean eta lorategian... intsektuak erakartzen dituzten landareak landatu: Borrajak, azak (kruziferak), kalendulak, tageta, mihilua (hinojo)...
- Pestizidarik ez erabiltzea...
- Askotan, nahikoa da baratzean hazten ditugun barazkiak loratzen uztea.



Anuenatura





AEK 23. Korrikaren antolakuntzan murgildu da

Iristear da, aurtan are, gure eskualdera 23. Korrika. **Martxoaren 19an, asteartean**, goizeko 9:45ean sartuko da Latasan, Imotzen; eta eguerdiko 14:00etan irtengo da Beruetetik, Basaburutik. Horrenbestez, goiz osoan zehar entzungo ditugu Korrikazaleen oihu eta algarak.

Hala ere, egun zoragarri hori iritsi aurretik, hainbat ekimen antolatu ditugu **Korrika Kulturalaren** lelopean. Korrika ez baita soilik egun bateko lasterkaldira mugatzen, ertz askotara heltzen den ekimena da. Besteak beste, bazkariak, antzerkiak, proiektzioak, haurrentzako ekitaldiak, bertsoak eta dantzak ikusteko eta gozatzeko aukera izango dugu hilabete honetan. Karteletan ikus ditzakezue zehatz mehatz ekintza guztiak.

Gainera, **petoak, banderolak eta txapak salgai** jarri ditugu bailarako hainbat tokitan: Larraintzarko bentan, Aizarozko ostatuan, Berueteko ostatuan eta Apeztegierrin. Bestalde, jakizue

Korrika Laguntzaile izateko, eta zozketa eta deskontu ugaritan parte hartzeko aukera ere badaukazuela. Horretarako, idatzi helbide elektroniko honetara: mattin-k@aek.eus



AEKren aurtengo ikastaroak

Eskolen ordutegiak. (Larraintzarren)

Hauek dira 23-24 ikasturtean ari diren taldeen mailak eta ordutegiak.

- A1 maila egiten ari direnak (urrian hasitakoak). Astelehenetan eta ostegunetan

15:30- 18:00

- B2-C1 maila. Astelehenetan 9:00-13:00.

Taldeetan hasi nahi baduzu, deitu 948604704 zenbakira edo idatzi larraun@aek.eus helbidera.

Mintzakide:

Mintzakide programaren helburu nagusia eskualdeko herritarren hitzkuntza ohituretan eragitea, harreman-sareak euskalduntzea eta euskaraz hitz egiteko aukerak sortzea da. Programaren bidez, euskaraz hitz egiten dutenek, ohiturarik ez dutenekin edo gehiago hitz egin nahi dutenekin euskaraz aritzeko elkartzen dira, astean ordu betez.

Ikasturte honetan hauek dira osatu diren taldeak:

- Astelehenetan, arratsaldeko 18:00etan Jauntsaratseko tabernan.
- Asteartetan, arratsaldeko 17:15ean Larraintzarko gizarte zentroan.
- Asteazkenetan, arratsaldeko 18:30ean Iraitzotzeko tabernan.

Parte-hartzea dohainik da, eta hamaika abantaila eskura daitezke: opariak, deskontuak harpidetzetan... Interesatuta bazaude bidali mezua <https://emanizena.praktikatu.eus/> edo deitu 948604704 zenbakira.

AEKn irakasle izateko ikastaroa.

AEKn irakasle izateko glotodidaktika ikastaroa egin behar da. Hurrengo ikastaroa maiatzaren 3tik ekainaren 21era izango da. Ikastaroaren formatua konbinatua da; on-line eta eskola presentzialak ostiraletan.

Informazioa eta izen-ematea: e-idazkaritza@aek.eus.



Basaburuko industriagunearen lehenengo fasearen urbanizazioa, amaituta

Pulunpeko ale hau itxi dugunean, azken ukituen faltan zegoen eta hilabete honetan bertan (martxoan) amaituko dira industriagune berriaren obrak. Itsasorako bidegurutzearen ondoan kokatzen da, errepidetik ikusi ahal izan dugu lanek nola egin duten aurrera.

Proiektuan adierazi bezala, bi fasetan eraikitzea da asmoa, eta lehenengo fase honetan bost partzela urbanizatu dira. Irudian ikusi daitezkeen P-1, P-2, P-3, P-4; Eta, P-6 partzelak. Beste biak beharren arabera handitzeko izanen dira (P-7 eta P-5, irudian).

Metro karratuaren prezioa 45 eurotan jarri da; eta, momentuz, bi enpresak adierazi dute interesa. Hain zuzen ere, gune berrian lursail bat erosteko interesa duenak 948 50 30 35 telefonora deitu edo udala@basaburua.eus idatzi dezake.



Hainbat ekimen eskualdean zehar, martxoaren 8aren harira

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, izan da zer egina eta zer ikusia gure eskualde zabalean. Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko berdintasun alorretik antolatu dituzte hainbat ekimen, udaletako Berdintasun Batzordeekin elkarlanean. Martxoaren 1ean izan zen lehendabiziko ekimena, Ultzamako Gizarte Etxean, ostiral kulturalen baitan. Bertan, *Abriendo camino*, *Groenlandia* izenarekin proiektzioa eta hitzaldia izan zen, eta Espainiako estatu mailako eskalada federazioko emakumezko kide bat izen zen gidaria.

Martxoaren 8an, eta, kasu honetan Basaburuko Bilgune Feministak deituta, Aizarozko Luzia Goñi kultur etxean elkartu ziren eskualdeko emakumeak, eta taldetik, Euskal Herriko hiriburueta arratsaldeko mobilizazioetan parte hartzera ere dei egin zuten, 'Gure bizitzekin negoziarik ez!' lelopean.

Martxoaren 9an, larunbatarekin, hainbat ekitaldi izan zituzten Odietan. Ziaurriztik abiatuta, inguruko bidezidorretatik ibilaldia egin zuten bertako emakumeek, eta, ondoren, bazkaria izan zuten Ziaurrizko Kattalin elkartearen. Arratsaldean, egitarauarekin jarraitzeko, *Sufragistas* pelikularen emanaldia izan zuten. Egun berean, baina, kasu honetan Basaburuan, emakumeen afaria izan zuten, Berueteako Ostatuan.

Martxoaren 10ean, berriz, Lantzen izan ziren ekimenak, Odietakoaren antzeko egitaraua izan baitzuten bertan. Goizeko 9:00etan mendi irteerarekin hasi zuten eguna, eta ondoren, bazkaria eta *Sufragistas* pelikularen emanaldia izan zuten. Egun berean, Ultzamako Gizarte Etxean ere izan zen beste ekitaldi bat: *El Cairo, 678* pelikula ikusi Zuten bertan.

Martxoaren 8aren harira antolatutako ekimenak hilabete osoa hartuko dute, dena den, oraindik zenbait ekimen falta baitira. Martxoaren 15ean, Laborategi zoroa antzezlan izanen da Ultzamako Gizarte Etxean, bost urtetik gorako haurrei zuzenduta. Eta, martxoaren 23an, berriz, bakarrizketa bat izanen da Basaburuan, Apeztegi berriko ganbaran: 'Bihotz, bi hots, bi txotx'.






Arrosa Sareko topaketak, aurten, Esan Erranen!

Euskal Herriko irrati libre eta irrati txiki euskaldunon sarea da Arrosa. Urtero topaketak antolatzen dira sareko kide den irrati baten herrian, irratien arteko harremanak eta elkarlana bultzatzeko asmoz. Bada, aurten, apirilaren 13an ospatuko dira topaketak, eta lehenengoz, Esan Erranen izanen dira. Arrosa Sarearen topaketak Nafarroan ospatuko diren lehen aldia izanen da, gainera.

Goizean Jauntsaratsen elkartuko dira irrati guztietako kideak, eta bertan, Esan Erranen 25. urteurrenaren harira prestatzen ari diren dokumentalaren lehen bertsioa ikusiko dute sareko kideek. Ondoren, ikusi-entzunezkoetik ateratako zenbait ideia oinarri hartuta, irratien arteko solasaldi eta eztabaida izanen da. Paraleloki, irratiko alde teknikoa lantzeko tailertxo bat ere egingen dute. Ondoren, eguerdi partean, Aizarotza mugituko dira sareko kide guztiak, hango ostatuan izanen baitute bazkaria. Eta, bazkalondoa alaitzeko, ikuskizunen bat ere izanen da arratsaldean... Beraz,

ongi etorriak izan daitezela Euskal Herriko Hamaika txokotako irratigile eta irratizaleak!



Carrefour
express

Zugandik gertuago

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9'00 - 20'00
LARUNBATA ETA IGANDEA
9'00-14'00 / 16'00 -20'00


CAMPING - KANPINA
IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Basaburuko mendi bizikletako eskola, martxan

Basaburua MTB taldekoek sortu dute eskola eta martxoaren 5ean hasi ziren lehenengo klaseekin. Manu Alvarezek azaldu digunez aspaldi zuten eskola sortzeko ideia: "Basaburuan, honezkero, toki ederra dugu bizikletan ibiltzeko, hainbat mailatako ibilbideak ditugulako; eta, eskola sortu dugu, gehien bat, kultura bat ere sortzeko helburuarekin, mendi bizikletaren ingurukoa. Eskiatzera joateko eta horrelakoetan ohitura gehiago dago eskolak emateko. Bizikletan, ordea, bi gorpilen gainean ibiltzen ikasten dugu, eta kitto. Baina mendi bizikletak baditu bere teknikak, bere posizioak, kurbak hartzeko modu desberdinak, eta mendian aurkitu ditzazkegun oztopoak gainditzeko ikasteko eskola bat jartzea pentsatu genuen".

Bi talde osatu dituzte, bat umeendako bideratuta, hastapenetarako; eta, bestea, teknika lantzeko. Lehenengoan hamalauk eman dute izena eta bigarrenean, hamaseik. Manu Alvarez: "Umeek jokuen bitartez ikasiko dute nola frenatu, kanbioak nola erabili, oreka lortzen, bihurguneak eta horrelakoak gainditzeko. Asmoa da pixkanaka ikastea, modu dibertigarri batean. Klase horiek ere aprobetxatuko ditugu umei kultura bat transmititzeko: mendian nola jokatu, ingurunea errespetatzen, mendian aurkitu ditzazketen beste erabiltzaile batzuk: oinezkoak, ehiztariak, onddo bila datozenak. Gero, bigarren talde bat dugu. Teknika desberdinak lantzea da asmoa: kurbak, oreka, frenada eta saltoak modu seguru batean egiteko".



De Rerum Natura

@zaldieroa

ADIMEN
artifiziala
marrazkilarien
LAGUNA
TRAFIKO
OTEIZARRA





UNEDekin lankidetzan, literatura mintegia, Aroztegin

Ignacio Lloret idazleak bultzatutako ekimena da Palabra y Fonda. Iruñeko UNEDekin urteetan daramazki elkarlanean, eta literatura landa eremura ekartzeko helburuarekin sortu du mintegi berri hau. Izarpe Kanpinean izanen da, martxoaren 20an.

Ignacio Lloret (Bartzelona, 1968) Alemaniar Filologia eta Zuzenbidea ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitatean; eta, ondoren, Literatur Zientzietan eta Literaturako Ikasketa Aurreratuetakoko diploma, Euskal Herriko Unibertsitatean. Idazlea da, hamaika liburu eta eleberri idatzi ditu, azkena Fragmentos de Elizabeth Harding, (Eunate, 2023) eta hainbat sari lortu ditu, tartean Nafarroako Gobernuak Vianako Printze sarietan literatur sormenari eskaintzen diona, 2001ean.

Duela 27 urte bizi da Nafarroan, 2005etik Aroztegin, eta UNEDekin elkarlanean aritu da hitzaldiak eta tailerrak eskaintzen eta hainbat irakurle talderen koordinatzaile

gisa: "Ordutik saiatu naiz nire literatur jarduna bailara eder hauek eskaintzen duten agertoki natural honekin lotzen. Horrela sortu ziren Aroztegiko topaketak eta interes beretik sortzen da Palabra y Fonda".

• Zer helburu du Palabra y Fonda mintegiak?

Landa eremura eta paisai pribilegiatu honetara literatura ekartzeaz gain, nire nahia da behin betiko literatur eztabaida-leku bat sortzea zonalde honetan, literaturaz hausnartzeko eta eztabaidatzeko.

• Nori zuzentzen da? Idaztea edo ezagutza berezirik izatea beharrezkoa al da?

Liburuetan eta literaturan interesa duen edonorentzat zuzenduta dago. Ez da beharrezkoa aurretiko jakintza berezirik izatea, nahikoa da literaturaz hitz egiteko gogoak izatea.

• "Fikziorako bestelako bideak" da goizeko hitzaldiaren izena. Zerren inguruan arituko zarete?

Fikzioa edo eleberri bat idazteko dauden erregistro eta formatu ezberdinen inguruan arituko gara.

Informazioa adibideen bidez osatuko dugu, zinema ekarri, esate baterako. Kontakizun bat osatzeko ohikoenetatik aldentzen diren bide alternatiboak ere badaudela erakutsi nahi dut.

• Arratsaldean, emakumeek idatzitako literaturaz arituko zarete. Zergatik?

Bigarren hitzaldi horretan literatur genero ezberdinetan eta literatur alderdi ezberdinetan nabarmentzen diren emakume idazleek hitz egitea da asmoa. Bestetik, emakumezkoek literaturan eta sormen arloan izan duten paperaren inguruan eztabaida irekitzea interesatzen zait.

• Hitzaldi bakoitzaren ondoren ariketa praktikoak egiteko aukera ere izanen da.

Bai, ponentzia-eztabaida- ariketa dinamika hori interesatzen zait. Ariketa batzuk idatzizkoak izanen dira eta beste batzuk ahozkoak.



BIBLIOTECA UNED PAMPLONA

Palabra y Fonda
literatura mintegia

Ignacio Lloret zuzendua

Aurrez aurrekoa Zentruko ikastaroak 2024ko martxoaren 20an

2024ko martxoaren 20a, asteazkenarekin
Izarpe kanpinean, Aroztegi (Atetz)
Kanpinerako bidaia parte-hartzailearen kontu
Parte-hartzaileen gehiengo kopurua: 15
Prezioa: 60 euro inskripzioarengatik + 17 (BEZa barne) kanpinerako
bazkariarengatik eta goizerdiko kafearengatik
Izen-ematea:
martxoaren 14a
(osteguna) baino lehen



10:00-11:30 1. hitzaldia eta eztabaida: Fikziorako bestelako bideak
11:30-12:00 Atsedendia kafearekin
12:00-13:30 Hitzaldiaren inguruko ariketak
13:30-14:00 Ibilaldia ingurutik
14:00-15:30 Bazkaria izarpen
15:30-17:00 2. hitzaldia eta eztabaida: Emakumezkoek sortutako literatura
17:00-17:30 Atsedendia kafearekin
17:30-19:00 Hitzaldiaren inguruko ariketak
19:00-20:00 Ondorioak, itxiera eta agurra



Poliki, baina bete duten herritarren kopurua gora doa

Aurretiazko Borondateen Agiria edo bizi-testamentua nolako osasun laguntza jaso nahi dugun zehazteko dokumentua da. Gaixotasun edo istripu baten ondorioz, erabakiak hartu eta adierazteko gai ez bagara, familiak eta medikuek gure nahiak zeintzuk diren jakin dezaten. Orain, gainera, lege berriak eutanasia baliatzeko aukera eskaintzen du.

Nafarroan 2017an bizi-testamentua betetzeko tramiteak sinplifikatu ziren eta Osasun Etxean betetzeko aukera zabaldu zen. Horregatik, 2018an egin zirenen kopurua bikoiztu egin zen Foru Erkidegoan. Ultzamaldeko osasun eremuan 96 egin dira 2023ra arte, horietatik 86, 2018tik hona. Estatuan Nafarroak du tasarik altuena, baina, hala ere, ez dira asko: 100 biztanletik ia hiruk betetzen dute Nafarroan eta Ultzamaldean.

Duintasunez Hiltzeko Eskubidea Elkartea

Lortutakoaren atzean, Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarte dago. Datorren urtean 40 urte beteko ditu eta Nafarroan ordezkaritza du duela 12 urte. Manu Ezeolaza sendagile ohia da hemengo lehendakaria: "Gaur egun 300 kide gara, eta gure asmoa jendea ongi hiltzea da, heriotza duin bat izatea. Horretarako bakoitzak buruari eragin behar dio, bere nahiak zein diren ikasteko, eta, horregatik, Olaguen izan genuen

hitzaldia bezalako asko eskaintzen ditugu; baita zine-forumak edo bestelako ekimenak ere. Esate baterako, Heriotza Duinerako Solasaldiak antolatzen ditugu Unibertsitate Publikoan". Aurten VII. ak izanen dira, apirilaren 25ean, 17:00etatik 21:00ak bitartean, eutanasiar baliatu diren familiarren eta abokatuen lekukotzekin. Igantzin, Lesakan, Arantzan eta Burlatan sendagile aritu da Ezeolaza, orain, erretiratu.

Horrekin batera, aholkularitza ere eskaintzen dute, hebidet elektronikoz eta telefonoz. Aurrez aurre Iturrama Kultur Zentroan biltzen dira hilabeteko lehenengo asteazkenean eta alde zaharreko Kondestablearen jauregian hilabeteko bigarren eta laugarren astelehenetan.

Zergatik egin?

Aipatu bezala, 2017tik Osasun Etxean egin daiteke eta ez da lekukorik behar. Erraztasun horrek egin dutenen kopurua bikoiztu egin du gure erkidegoan eta Estatu tasarik altuena bildu du ordutik. Egiteko interesa duenak gizarte langilearekin hitzordua eskatu besterik ez du egin behar. Berak bidaliko du Iruñeko erregistrora eta,

**Duintasunez Hiltzeko
Eskubidea, Nafarroan:
696 357 734**



Duintasunez Hiltzeko Eskubidea
elkartek hitzaldia eskaini zuen Olaguen



horrela, medikuek zuzenean ikusi dezakete haien ordenagailuetan.

Etsaingo Reyes Perez Oiartzun Olagueko hitzaldian izan zen eta, honezkero, bizi-testamentua egin du: "Etxean ere hitz egin dugu, anai-arreben artean. Beldur handia dago honetaz hitz egiteko. Nik etxean hitzaldian ulertutakoa azaldu nien. Anaia-ahizpek ere egiten dute, beraz, zerbaitetarako balio izan du. Momentua iritsita, besteena egina aurkitzea gustatuko litzaidake. Bestela, gelditzen direnendako buruhauste handia izan daiteke zenbait gauza erabakitzea". Manu Ezeolaza: "Bizitzan, gainontzeko gauza askorekin bezala, gauzak azken momentura arte uztea ez da ideia ona. Hitzaldiek tabu hori ahultzen hasteko balio dute". Perezek ohartarazi duenez, senideen artean egon daitezkeen desadostasunak argitzeko ere balio dezake. Izan ere, hitzaldian zeuden artean ikusi zenez, nahiak oso ezberdinak izan daitezke: "Asko gustatu zitzaidan nolako amaiera nahiko genukeen galdetzea, eta 12 pertsona baldin baginen, 12 modu ezberdin aipatu ziren. Bata bestearekin ez zuen ezer

ikustekorik. Ados geunden gauza bakarra: ez dugula inori lana eman nahi eta ez dugula sufritu nahi". Irati Alvarez Iraizotz, Olaguekoa da eta 17 urte ditu, amarekin hitzaldira joan zen: "Herentziaren testamentuari buruz noizbait hitz egin dugu eta tramiteak egin ditugu, baina bizi-testamentuaren inguruan ez dut inoiz hitz egin". Orain, ama lagunduko du gizarte langilearekin bizi-testamentua egitera, nola egiten den ikasteko eta Alvarezek berak zer nahi duen pentsatzen hasteko, gauzak argi dituenen berak ere egiteko asmoz.

55 urtetik gorako emakumeak

55 urtetik gorako emakumeak dira bizi-testamentua betetzen dutenen gehiengoa; eta, baita hitzaldietara joaten eta elkartean aritzen direnen gehiengoa. Manu Ezeolaza: "Betiko zaintzaileak izan dira emakumeak, gaixoen ondoan izan direnak eta sufrimendua ondoan izan dutenak. Honen aurrean eta tabuen kontra, aurpegia jartzen dutenak dira". Hain zuzen ere, Reyes Perez Oiartzunek ama galdu zuen duela urtebete baino gutxiago: "Gaia gertutik bizi izan dudanez gauza batzuk argitu nahi nituen". Aldi berean, ez da

kasualitatea, hitzaldira hurbildu zen gazteena, Irati Alvarez Iraizotz, osasun arloko ikaslea izatea: "Mendekotasuna duten pertsonen artean emateko teknikaria izateko ikasten ari naiz. Gai honen inguruan haratago joan nahi nuen, baina ez bakarrik profesional moduan, etxean ere praktikan jartzeko".

Ultzamaldekoko datuak ikusita, generoari dagokionez, aldea ez da hain handia, 52 emakume egin dute eta 44 gizonek. Hala ere, adinean gora joan ahala txikitzen da alde hori, izan ere, 65 urte gutxiagokoen artean 18 gizonezkoak dira eta 32, emakumezkoak.

Informazio gehiago eta ereduak deskargatzeko aukera:

DMD edo
Duintasunez
Hiltzeko
Elkarteen
webgunea



Nafarroako
Gobernuko
eredua eta
informazioa
euskaraz:



▲ Reyes Perez Oiartzun



▲ Irati Alvarez bere amarekin joan zen hitzaldira

Eutanasia, baldintzekin

2021eko martxoan onartu zen Espainiako Kongresuan Eutanasia Erregulatzeko Lege Organikoa eta urte bereko ekainean sartu zen indarrean. Nafarroan, geroztik, hau da, urte eta erdian, 13 pertsonak eskatu dute. Manu Ezeolaza: "Urtean 6.000 heriotza ditugu Nafarroan; beraz, eutanasia eskatzen dutenak ez dira sobera. Baina aukera izan duten horiendako askatasun ate bat izan da".

Baldintzak eta informazio gehiago DMD elkartearen web orrian



Ihoteetako jaialdia, Larraintzarren. Galtzagorriak



Ihoteetako jaialdia, Larraintzarko ikastetxean. Sorginak



Ihoteetako jaialdia, Larraintzarko ikastetxean. Mamoxarroak



Zenozko ihoteak



Zenozko ihoteak



Lanzko ihoteak. Amaia Urdaniz aritzuarrak ateratako argazkia



Auzako frontoian, Raketa edo pilota erabiltzeaz aparte umorea ere baliatzen dute. Goian, ezker eskuin, Iker eta Nahia; erdian, Markel eta Urko; azpian Andoni eta Elene



Lanzko ihoteak. Amaia Urdaniz aritzuarrak ateratako argazkia



Plazan, dantzan, Zenozko ihoteetan



Gartzarongo ihoteak

Maisu izendatzeak goiz hasi ziren gure alderdian

Gaurkoan Ultzaman hezkuntzarena noiztik den eta nola sortu zen aipatuko dugu.

Ikuskatu izan den dokumentazioaren arabera, batez ere Nafarroako Errege Artxiboan, egiaztatu izan da XVIII. mendean Ultzamako herriak hasi zirela haurren heziketarako maisuak kontratatzen.

Aitzineko etsenpluetako bat Eltzaburuko kasua da. Eltzaburun erabili zen bidea bertze herri batzuek erabili zuten berbera da, hau da, zenbait aberatsek heziketarako uzten zuten dirutzarekin fundazio bat egiten zen, utzitako dirutza horren kudeaketarako.

Mitxelkoneko semea zen Juan Jose laben Barberiak, 1734an sortuak, Notarioaren aitzinean, Iruñean, 1784ko irailaren 16an egin zuen testamentuan, 2.000 dukat utzi zituen herriarendako, dirutza horren korrituarekin maisu baten soldata ordain zezan Eltzaburu, Ilarregi, Auza eta Suarbeko haurren hezteko.

Donazio edo dohaintza horren administratzeko eta maisuak izendatzeko Fundazio bat eratu zuten eta bertako buru **Mitxelkone** izanen da beti, herriko apeza eta Eltzaburuko auzo guziak, berriz, kide; eta gainerako hiru herrien izenean, bakoitzeko alkatea.

Horrela, data horretatik hona eskola jarri zen Eltzaburun aipatu lau herrietako umeentzat.

1818ko maisu hautatzea.

Kontratu guziak Notarioaren aitzinean egin behar baitziren, Marcos Larunbe, Auzako Notarioarekin bildu ziren urte horretan. Bildutakoen izenak hona nola ziren

ELTZABURUKOAK	
Pedro Juan Arrarats	Apeza
Miguel Francisco Etxandi	Mitxelkoneko nagusia
Juan Martin Zenotz	Iturraldeko nagusia, errejidore edo alkate zena urte hartan
Martin Lazaro Beratsain	Ostatukoa
Martin Jose Oitz	Martenekoa
Pascual Artze	Txartenekoa
Juan Latasa	Matxenekoa
Juan Miguel Artze	Aldategikoa
Jose Joaquin Ilarregi	Etxezarrekoa

Eltzaburuko auzo ziren gehienak hemen ageri dira, gutxi gehiago ziren herrian. Eta Eltzaburuko kontzejua zen maistrua hautatu eta izendatzeko gai zena bertze hiru herrietako alkate zirenekin batera. Hona hemen zein ziren:

Martin Jose Zarrantz, Ilarregiko **Erramonekoa**.

Juan Sebastian Barberia, Suarbeko **Sandronekoa**.

Juan Antonio Oiarzun, Auzako **Laurzenekoa**.



Larraitzarra joaten hasi artio hau izan zen Eltzaburuko eskola



Kontratuan azaltzen denaren ariora, maistru behar zuenak bete beharreko baldintzak, honako hauek ziren:

-Herrian bizi.

-Hurrei Kristau dotrina erakutsi.

-Irakurtzen, idazten eta kontuak egiten erakutsi.

Eginkizun hauetaz gain, bizi zintzokoa eta ohitura onekoa behar zuen izan.

Jakina, hurrei hezkuntza ona emanen eta probetxu hobea aterako zien aditua behar zuen izan.

Dokumentu honetan ikusten ahal den bezala, maisua hautatzeko orduan auzoak ziren agintea zutenak, ez maistarrak. Dena dela, hori bai, hezkuntzarako dretxoa haur guziek zuten, auzoen nola maistarren seme-alabak izan.

Dokumentu berean aipatzen da eskola egina zutela lau herrien artean.

Baina bazen bertzerik ere, testamentua egin eta maistru hau izendatzerako 34 urte pasa zirela eta ordurako 2.000 dukatek ematen zuten 60 dukateko korritua

ez zela aski. Errenta hori goratzea erabaki zuten. Eta soldata eskas zela eta osotzeko erabaki zen auzo ziren guziek, eultzi garaian erregu erdi bana, garitan, eman beharko ziotela maisuari. Lau herrietako apezek ere auzoek bezala ordaindu beharko zuten.

Auzoetxebakoitzakordaindutakoaz at, ikasle bakoitzak, izan mutikoa, izan neskatoa, honela ordaindu beharko zuen urte osoko saria:

1.-Irakur sailekoak (lehen maila) : 2 erreal bizkor.

2.-Idatz sailekoak (bigarren maila): 2 erreal bizkor

3.-Kontadoreak (hirugarren maila, kontuak egiten ikasten zutenak): 4 erreal bizkor.

Maistruaren bertze eginkizun batzuk:

Maistruak meza kantatu guzietara joateko obligazioa izanzen zuen eta apezari lagundu beharko zion kantatzerakoan eta meza ematrakoan. Lan guzi honen truke, baratzea eta alor bat emanen zitzaion eta urte guzizako egurra; gainera, bi **urdato** mendian bazkatzeko dretxoa.

Eta bukatzeko, bere kargu izanzen ziren eliza garbitzea eta erlojuari korda ematea. Lan honen saria 4 dukatekoa izanzen zuen.

Goiti aipatu da auzo zirenek beren haurrengatik ordaindu behar zutena, baina dokumentuan gehitzen da gainerako etxeetako haurrek ordaindu beharko luketena ere: maistarren umeak ere joaten ahalko ziren, baina erregu erdi garitan eta gainerako sari guziak dirutan ordaindu beharko zituzten. Auzo zirenek bezala.

Haur bakoitzaren ordainketa urte osokoa izanzen zen eta ikastaroaren hasieran ordaindu, urtean barna zintzo-zintzo joan edo ez (Azpimarratu behar da urteko zenbait arotan ume aunitzek eskolara joateari uzten ziotela, nekazalgoan haien beharra izaten baitzen beren etxeetan)

Maistruaren izendatzea

1819ko abenduaren 4an berriz ere bildu ziren Notarioaren aitzinean maistruaren izendatzeko. Izendatua Juan Martin Iraizotz izan zen, Eltsoko **Perutxenekoa**, zeinek etxea saldu ondoren Eltzaburun jarri behar izan baitzuen bizitzen.

Hiztegia

Izendatu: nombrar

Auzoa (Auzo etxea): hemen etxaldea duena edo esan nahi du. Maistarrak ez ziren kategoria honetan sartzen.

Kudeatu: gestionar.

Kide: miembro, sozio

Hautatu=Aukeratu

Eultzia= Gure alderdian ultzia esaten da.

Urdatoa=Txerri gaztea, bargazta baino handixeagoa.

Azpimarratu: subrayar



▲ Eskola izandakoa erabat berritua. Orain Herriko elkarte eta Kontzejuko ofizinak daude bertan.



Zuzentzen ziguten eta zuzendu gintuzten (V)

Dena igual da!

Gaurko egunean Euskal Herrian euskaraz nolanahi aritzea berdin da, euskara gaiztoa edo ona izan, askori berdin zaie. Nolanahitarrez josirik gaude. Baina, hori bai, denek ingeles ikasi behar dute. Oooo, ingelesa! Ni ez naiz kofradia horretakoa, arraioa!!!

Juanito Azpirotz Azpirotz eta Juan Erbiti Aldaregiak, euskaraz ikasten lagundu izan ziguten. Gu muttiko koxkor batzuk eta haiek mutil gazteak. Guk haiek entzun eta aditu, eta ikasi.

Gu eskolan hasi eta berehala, **pues sí**, ikasi genuen. Eta euskarara ekarri genuen erdarazko esaldi hori: **pues, bai; pues, ez**. Bai gure maisuak ohartu ere!

-Et, et, ze esat'iauzte! -oihu egin ziguten.

Gaizki, oso gaizki dago esaldi hori. Baina zuk uste al duzu askoz hobeki dagoela **BA-BAI** esaldia, Telebistan eta Irratian hainbesteri entzuten duguna? Gaizki eratua, eta ematen dioten azentua okerrik bada okerreana. **Bá-bái**, azentua eta

guzi. Euskaraz, berriz, **Bai ba** da, azentuatuz, **bai-bá**.

Bá-bái Telebistan entzuten dugun esaldi horrek hitzak euskaraz izanen ditu baina gramatikalki gaizki eratua eta azentua erdarazkoa du. Saltsa polita. Guk ttikitan ibiltzen genuen **pues bai** hori baino askoz okerrago, erdara mozturrotua delako. Zaldi okerra saldu eta asto maingua erosi. Ederra marka!

Erdararen mende ibili ginen asko, erdara gehiegi bazterretan eta menpekotasun hori ageri zaigu, adibidez, esaldi honetan: *beroa egiten du*, erabat erdararen kalkoa, erdararen mutil, *bero dago* esan beharrean; motxago dena gainera. Aipatu oker hau maisu horiek erakutsi ote ziguten? Ez naiz oroitzen.



Euskaraz erakusten saiatu ziren Juanito eta Juaniko, lotsarik gabe okerrak zuzenduz. Eta guri zuzentzeaz at, bete gauza bat ere erakutsi ziguten: euskara on bat eta euskara txar bat bazirela. Hori izan zen ikasgai printzipala.

Eta bukaera eman diezaiodan gaurkoari: ongi ikastekotan, ongi dakitenekin hitz egin ahal guziez; horiekin jolasean ariz da ikasten, hori da bidea.

Ardo ozpindua komunetik behera bota beharrekoa da. Ardo frexkoa da behar duguna mahai gainean, urdaila otindu ez dakigun.



Txurdan

Hiztegia

Eratua: ordenatua

Menpekotasuna: sometimiento, dependencia, subordinación.

Urdaila: estomago

Otindu: urdaila mindu. Gurean ibiltzen da eta hiztegieta ez dut topatu.

Jolasean: hizketan. Jolasean ari=hizketan ari.

◀ Etxalekuko mutilak Sanferminetan. Ezkerretik hasita: Martin Preboste (+), Mattin Leziaga (+) (Arraraskoa) Martin Igeltz, Ezezaguna zaiguna, baratxuriak lepotik behera; Juaniko Erbiti, Juanito Azpirotz (+) eta Manuel Aldaregia (+) Beheko lerroan: Zahatodun hori nor da? Ezezaguna. Mariano Erbiti Elberdin, Argiñaren etxekoa.

Zuzentzen ziguten eta zuzendu gintuzten eta (VI)

Ardo frexkotik



Utzi, utzi dena. Dena igual da

Oraingoaz, seigarren txatal honekin bukatu nahi nuke nire haurtzaroko oroitzapen ttikiak euskara dela eta. Haurtzaroa, karrika erabat euskalduna genuenekoa. Hori bai, batzuetan oraingo egoera ere ezin dut bazter utzi. Nola bestela?

–“A bocados” ETB2ko atsaldeko 8etako saioan, Ander Gonzalez eta Gabriela Uriarte aritzen dira. Hala, egun batez, telebista aurrean eta Gonzalezek, jaiotzez euskaldunak, dio:

–*Mirando a mis **antecedentes** italianos...*

–**Antecedentes???** –Irri maltzur batekin Gabrielak.

–*Bueno, mis **ancestros**.*

Eta euskaraz hitz horiek esaten ba ote daki Gabrielak? Apustu eginen nuke ezetz!

Gure herrian euskaraz motel ari denak aldemenekoari irri egin erdaraz ostikoren bat sartzen duelako? Zoaz popatik hartzera Gabriela!

Erdarazko bi hitz horien euskarazko ordainak honako hauek dira: Asaba, arbasoa, aurrekaria. Zuk asmatu orain zein zeri dagokion.

Erdaraz gaizki esaten denean zerbait, aldamenekoak zuzenduko dizu. Ingeleseaz ez dakienari edo gaizki dakienari muzin eginen zaio.

Eta gainera azentu ona eskatzen zaio. Aldiz, euskaraz zerbait gaizki entzun eta norbait zuzentzen baduzu, oi, oi oi! Zu fusilatzeako moduko begiradaren bat ez bada izaten, kontent.

Eta euskal azentu gaixoa ez aipatzea hobe!

Entzun izan ditugu berealdikoak. Zuzentzea gaizki dagoela, edukazio falta dela, eta ez dakit zenbat irain gehiago. Ia-ia bekatu mortala.

Gure herrian gaude eta gure hizkuntzaz deus ez jakitea, barkagarri da. Edo, nahiz, trakets, motel, eta gramatikari ostikoka aritzea, euskaraz jakitea da. Eta euskaraz ongi ari dena, berriz, ez da deus. Ez zaio kasurik egiten. Nolanahi hitz eginda ere berdin omen da. Eta hori xuritzeko edo, kontu hau aipatuko dizute: *aritzeak du inportantzia*. Eta ongi aritzea ez al da inportanteagoa?

Erdaraz gaizki aritzea ez da barkagarria.

Ingeles ez jakitea, analfabetoa izatea omen.

Euskaraz gure herrian ez jakitea, ez da deusen seinale. Euskaraz moldakaitz aritzea, euskaraz ongi ihardukitzea bezala baloratzen da.

Nolanahikeria, alferkeria sartua dugu barne-barnean eta horrengatik ikusten eta entzuten ditugu ikusi eta entzuten ditugunak.

Eta hor etorriko zaizu bakarren bat esanez, euskarazko okerrak noizbehinka zuzentzea bortxa dela, hori besten gauzetan sudurra sartzea dela, bidegabeki sartzea, edo faxismoa dela. Aldiz, espainola, frantsesa eta ingelesa behartzea Zeruko santuen bedeinkazioa!!!

Bedeinkazioa? Bedeinkapena? Ez nuke XIX. mendeko bertsolari hark bezala bukatu nahi gaurko Ardo frexkoa, alegia, “ez dakit nori egin maldizioa”. Ez, eskerronez eta pozez bukatu nahi dut. Bai, esker ona azaldu nahi diet euskaraz maisu izan ditugun Juaniko Erbiti eta Juanito Azpirotz herrikideei.

Zuzentzen ziguten eta zuzendu gintuzten. Eta gu ere ez gaude isiltzeko. Ez horixe!



Txurdan

Hiztegia

Muzin: desatsegin keinua

Aldiz: berriz

Berealdikoa: enormidad, grande

Iraina: injuria, ofensa.

Bidegabeki: injustamente.



▲ Etxalekuko erdigunea



Denok bat, orain 130 urte

Nafarroa altxatu zen hura (1893-1894)

Nafarroa 1512. urtean armen bidez bitan banatu zuten eta kendu zioten "independentzia". 1833-1840ko karlista gerra galduaren ondorioz foruak murriztu eta 1872-1876ko azkeneko gerra karlistaren porrotaren ondoren, berriz ere etorri zitzaigun hondamena. Baina Espainiak aski ez eta, gure kontrako erabakiekin segitu zuen. Eta 1893-1894an herri honen errebolta izan zen, Gamazada deitua.



la inor gutxi oroitzen da *gamazada* deitu zioten Nafarroako oldarraldiaz. 1893an Foruen azken aztarnak kendu nahi izan zizkigun Espainiako Ogasun ministroa zen German Gamazok.

Gamazok, aurrekontu lege berri bat onartu nahi zuen eta gure fiskalitate ahalmena kendu, Espainiako Erresumako probintziekin berdinduz. Probintzia soil bat bagina bezala. Kontutan hartzekoa da Gamazo berak, Sustapeneko ministroa zelarik, herrioi maistrua hautatzeko ahalmena kendu zigula 1887an.

Gelditzen zitzaigun askatasun gutxi horien alde altxatu ziren gure aurrekoak, batasun harrigarrian. Nafarroan hainbat manifestazio eta protesta izan ziren 1893an eta 1894an. Nafarroa guziko udalek beren ezadostasuna eta haserrea erakutsi zuten. Gure alderdiko udalerriek ere Gamazoren legearen kontrako bere erabakien berri jakinarazi zuten prentsaren bidez. Tuteran eta Iruñean manifestazio jendetsuak egin ziren. 1893. urtean Nafarroa guzian sinadurak bildu ziren aipatu lege horren kontra; 120.000 nafarrek sinatu zuten. Iruñean, 17.000 lagunek, ordura arte izan zen manifestaldirik handiena egin zuten. 1893ko ekainaren 4a zen, igandea.

Jendearen ezinegonaz, jendearen haserreaz, Espainiako Gobernuak ez zuen kasurik egin. Hala ere, 1894an Nafar Diputazioa deitu zuen negoziatzera, Madril, baina negoziazioak porrot egin zuen.

Diputazioari, trenez itzultzerakoan, Nafarroa guziko jende eta autoritateek harrera izugarria egin nahi izan zioten. Nahigabea lagun. Horretarako, 1894ko otsailaren 18an trenez zetozen gure negoziatzaileei, Castejona iritsi zirenean, milaka lagun atera zen tren geltokira ongi etorri eta atxikimendua azaltzera. Ekitaldi historikoa izan zen. 30.000 lagun bildu omen zen. Eta bideko herri guzietan berdintsu izan zen. Harritzeko moduko ongi etorriak.

Hala ere, zorionez, Cuban independentistak altxatu ziren Espainiako morrontzaren kontra eta gobernu krisi bat sortu zen Espainiako Gobernuan. Hori zela eta, moldaketak izan gobernuan eta Gamazo kargutik kendu zuten. Eta Gamazo Gobernutik kentzean, berak aurrera atera nahi zuen legea ere ez zen indarrean jarri.

Gutxigatik, baina Nafarroako foruak bizirik atera ziren. Momentuz.

Ekintza miresgarri hark aurten 130 urte bete ditu; nafar guziak bat eginik Espainiaren kontra altxatu zirenekoa. Karlistak izan, liberalak izan edo kontserbadoreak izan, denak batean, etsenplu izugarria utzi ziguten gure aurrekoek.



Geroztik Nafarroaren aldeko horrelakorik ez dugu ezagutu, tamalez.

¡Foruen monumentua

Ekintza hura zela eta, monumentu bat altxatzea erabaki zen Gaztelu enparantzan. Ondoren Sarasate pasealekuan jartzea erabaki eta 1903an bukatu zen. Oinarri pentagonal du eta bost alderdietan brontzean idatzitako idazkun bana dago. Horietako bi euskaraz dira, alfabeto iberikoan eta latinoan. Beste hiruak gaztelaniaz daude. Bost idazkun ezberdin.

Hona euskarazkoa, alfabeto latinoan idatzia:

Gu gaurko euskaldunok, gure aitasoen illezkorren oroipenean bildu gera emen gure legea gorde nai degula erakusteko

Eta Monumentuaren goienean emakume baten irudia. Nafarroaren alegoria da, eskuineko eskua behera duela Nafarroako kateekin eta ezkerrekoa gora duela larruki batekin, **Ley Foral** diona Munduari begira (Niri, ttikitari, Madrila begira zegoela kontatu zidaten. Hala ez

bada ere, ongi pentsatutako kontua denik ezin uka)

Nafarren ohorezko liburua

Foruen alde firmatu zuten 120.000 lagunuen firmatzaileen izen-deiturak Diputazioak liburu batean bildu zituen. Hona Imozko udaletxean gordetik dagoen liburu famatuaren alea. Alderdi honetan ere firmak bildu ziren eta ez gutxi alajaina! Hona zenbatek sinatu zuten udalerrri hauetan:

Anue.....228

Atetz.....129

Basaburua....197

Imotz.....209


Lantz.....89

Odieta.....124

Ostiz.....50

Ultzama.....696

Bai, hemen ere izugarritzko firma biltzea izan zen. Sinatzaile gehien-gehientsuenak gizonezkoak dira; hala zen orduan. Gainera, kontuan hartu behar da gizonezkoetan ere firmatzen ez zekien asko zela garai haietan.



Hona Ostizko sinadurak ekarri ditugu.

Gainerako udalerrietako sinatzaileen izenak ikusi nahi dituenak QR hau ikustea aski luke. Jakin mina ase dezakezu.



Denok bat,

orain 130 urte

Donostian sei lagun hil zituzten

Gernikako Arbola himnoa kantatu zen, bai Castejonen, bai Iruñean eta beste nonahi ere, gure askatasunaren alde. Hori zen orduko ohitura, Iparragirre kantari handiak konposatutako himnoa kantatzea. Eta orain ere, askok eta askok, Euskal Herriaren himnotzat dute.

Donostian, 1893ko abuztuaren 27an Espainiako presidentea zen Mateo Práxedes Sagasta etorri zela-eta, manifestazio baketsu bat egin zen, protestatuz Gamazoren aurrekontu legearen kontra. Ohitura zen bezala, Gernikako Arbola himnoa kantatu zen. Kantuz ari zirela guardia zibila tiroka hasi eta 3 lagun hil zituen, 30 zauritu eta 60 atxilotu. Ondorengo egunetan zauritu horietako beste hiru hil ziren. Sarraskia.

Castejongo elkarretaratzeaz bi hitz

Castejonen, oraindik Eusko Alderdi Jeltzailea (PNV) sortzeko zegoenean, honen sortzailea izanen zena, Sabino Arana, Bilbotik espres etorri zen bere anaia Luisekin batera Nafarroari elkartasuna erakustera.

Iruñera bezperan iritsi ziren eta Cafe Iruñan bildu ziren Estanislao Aranzadi eta Daniel eta Juana Irujorekin, bi familiak ere famatuak eginen zirenak; abertzale munduan erreferenteak. Zutoihal bat eraman behar zela eta, bertan diseinatu omen zuten eta Juanak josi omen zuen. San Andres gurutze gorri bat oihal zuriaren gainean. Eta idatzi bat euskaraz eta erdaraz, bizkaitarren agurrarekin.

Beraz, kontatu izan den bezala, ez da egia Castejonen kulunkatu zela lehen aldiz ikurrina. Ikurrina ez baina bai Euskal Herria bere osotasunean sinbolizatu nahi zuen lehen ikurra.

**Txurdan**

► QR Aspaldiko kontuak sinadurak



Hiztegia

Oldarraldia: revuelta

Ogasuna: Hacienda

Erresuma: Reino

Sustapena: Fomento

Harrera: recibimiento

Idazkuna: Inscripción

Aitaso: Antepasado

Larrukia: pergamino

Ikurra: símbolo, señal

▲ Foruen monumentuan, iaz, sei hilei egindako omenaldikoa



Nafarroako produktu artisauen denda berria Aizarotzen

Abenduaren 9an denda berri batek atek ireki zituen Aizarotzen, Basaburuan. Ohiko produktuak ere eskuratu daitezkeen arren, Nafarroako artisauek eta ekoizle ekologikoek sortutako gutuziak dira protagonistak denda sortu berrian. Eta, horien artean, gazta da produktu izarra: Nafarroako gazta eskaintza zabalaz gain, gaztaren museo etnografikoa ere martxan jarri du dagoeneko Suana Orduna proiektuaren bultzatzaileak

Aurkeztuko diguzu zure burua, eta nondik nora iritsi zaren Aizarotza?

Ez naiz eskualdekoa, Erronkari ibarrekoa naiz ni, Uztarrotzekoa. Baina, baditut lagunak eta ezagunak inguru hauetan, Gerendiainen-eta. Gaztea izan arren, aspalditik ari naiz Nafarroako artisauekin lanean, eta gune fisiko baten falta sumatzen genuen. Leku bila ari ginen, bertako artisauen produktuak bilduko dituen gune fisiko baten bila, artisauak eta bezeroak topatzeko toki bat, zeinetan produktuaren trazabilitatea bermatuko den. Landa eremuko toki baten bila ari ginen, nire aurrekontura egokituko zena, eta horrela sortu zitzaidan Aizarozko aukera.

Ze produktu mota aurkituko ditugu Gaztaburua dendan?

Nafarroako artisauen eta ekoizle ekologikoen denda da hau, eta kalitate handiko produktuak aurkituko ditugu bertan: gazta, hestebeteak, ardoak, kontserbak, eztia, xaboiak... Nafarroako kalitate zigituen parte dira produktu guztiak.

“Gazta bere ikuspegi zabalean lantzea da asmoa, alderdi historiko eta kulturalari ere begiratuz”

Eta, bakarrik ari zara dendan, edo beste norbaitekin?

Momentuz bakarrik ari naiz lanean, baina egia da lagunaren partetik laguntza handia ere izaten ari naizela.

Dendakoaz gain, bestelako zerbitzuak ere martxan jarri nahi dituzu, ezta?

Bai, gaztaren inguruko museo etnografikoa martxan dugu dagoeneko, eta bisitatu daiteke. Bertan, artzaintzan eta gazta egiteko erabiltzen diren tresnak bildu ditugu. Bestetik, dendan, bertako produktuak ere dastatzeko aukera ematen dugu: gazta, txorizoa... Eta, proiektu berria denez, poliki-poliki noa gauzak gehitzen, baina asmoa da gazta bere ikuspegi zabalenean lantzea: ikuspegi historikoa, kulturala, hezkuntzari dagokiona,

eta beste. Oraindik ideia da eta ez dago martxan, baina bai, ikuspuntu pedagogiko eta didaktiko batetik ere lan egin nahi dugu gaztaren munduan, bisitak eta horrelakoak antolatuz.

Herritarren partetik, zer nolako harrera izan duzu?

Oso ongi hartu naute, jendea pozik dago herrian zerbitzu berri bat edukitzearekin, eta poliki-poliki, ari naiz Aizarozko eta bailarako jendea ezagutzen. Pozik nago.

ORDUTEGIA

Larunbat, igande eta jaiegunetan, goizeko 11:00etatik 16:00etara. Dena dela, mugimenduaren Arabera, ordutegia egokitzen joanen direla nabarmendu du gazteak.



▲ Suana Orduna, Aizarozko denda

Nesken errugbi taldea osatu nahi dute Baztanen

BRTko emakumezkoen taldea osatu nahi dute eta horretarako hainbat emakume biltzen da, ostiralero, Lekarozen. Han aritzen dira Ultzamako batzuk eta eskualdeko neska gehiago animatu nahi dituzte.

Erdi alkoztarra eta erdi etsaindarra den Maite Ibarra Berraondorekin (22), Maialen Marturet Cia lizasoarrarekin (23) eta, Zenotzen bizi den Maika Iraizoz Ciarekin (Eltzaburu, 32) bildu gara. Haiei, batzuetan, Etsaingo Laura Urdin batzen zaie. BRTko ekimena ezagutu eta berehala apuntatu ziren. Maite Ibarra: "Baztango

Gazte Asanbladan sortu zen ideia. Errugbian aritzen dira batzuk eta nesken taldea osatzeko beharra ikusi zuten".

Hirurak urtetan aritu dira errugbian, baina gehiengoak zerotik hasi da, Maika Iraizoz: "Une eta talde ezin hobea da probatzeko zerotik ikasten ari direlako".

badago. Adibidez, Maialen ni baino aunitzez azkarragoa da, eta ni handiagoa naiz eta gustukoagoa dut plakatzea; orduan, ni toki batean kokatzen naiz eta bera bestean". Maika Iraizoz: "Azkenean nik faltan dudana besteak osatzen du eta, aldrebes, guztion artean osatzen gara".

Maika Iraizoz:
Zeinen ederra izanen litzateke gaupasara joaten diren horietako batzuk ere taldean eta proiektuan parte hartzea



Denontzako tokia

Taldean hamabost urte ditu gazteenak, eta hogeita hamazazpi zaharrenak; horregatik, probatzera animatu nahi dute pertsona oro, azaldu digutenez, errugbia baldintza fisiko eta adin guztietarako kirola baita. Maika Iraizoz: "Eredua ni naiz, haurdun nago eta jokatzeko jarraitzen dut! (barreak). Mundu guztiak jokatu dezake, norbaitek esan dezake, 'jo nik arazo bat dut besoa', baina horrek ere bilatuko du bere tokia. Errugbiak abantaila hori ere badu, moldatu daitekeela, toki batean edo bestean kokatu zaitezkeela, zure beharren edo baldintzen arabera".

Izan ere, zelaian hamabost jokalaririk aritzen dira, bakoitza bere funtzioarekin. Maialen Marturet: "Bi multzotan banatzen gara: aurrean doana eta beste hiru laurdenek osatzen dutena. Hiru laurdenak azkarragoak izaten ohi dira, arinagoak; eta, aurrelariak pixka bat indartsuagoak dira, beraiek baitira plakatu behar dutenak". Maite Ibarra: "Hamabost postuak ezberdinak dira horregatik edozeinentzat tokia

Estigma ezabatuz

Errugbiak izan dezakeen itxura basatia ulertzen dute, baina kanpotik bakarrik eman dezakeen zerbait dela azaldu nahi dute. Maika Iraizoz: Ikustera etortzen den jendeak pentsatu dezake, 'joe, elkar jotzen ari zarete!', baina barrutik ez duzu sentsazio hori. Gainera, arau batzuk daude, arbitroa ere badago eta horrek guztiak markatzen du zer egin dezakezun eta zer ez, eta ezin duzu jo. Probatzen duenak ikusiko du".

Hala ere, irudi hori poliki-poliki aldatzen ari dela uste dute. Maite Ibarra: "Beharbada errugbiaren baloreak gehiago ikusarazten ari dira, eskoletan eta telebistan ere gehiago ikusten delako". Maika Iraizoz: "Zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta aurreiritzi gutxiago. Gauza batzuk ezagunak egiten hasten dira. Arbitroari ezin zaiola hitz egin, adibidez, edo hirugarren denbora dagoela. Maitek zioen bezala, eskoletan geroz eta gehiago lantzen da. Ni txikia nintzenean forma horretako baloia ez neukan sekula ikusia!" (barreak).



Gehiago ikusten den horretan, zenbait irudi ohikoak bihurtu dira sare sozialetan, besteak beste, afizioaren arteko harreman ona erakusten dutenak, eta beste kirol batzuetan hainbeste ikusten ez direnak. Maika Iraizoz: "Bai, errugbian afizioak ez dira banatzen, jarraitzaileak nahasita esertzen dira, beraz, ni kontrako taldearen jarraitzaile baten ondoan eserita egon naiteke eta lasai asko komentatu dezakegu partida, edariarekin topa egiten dugun bitartean!".

Erreferenteen beharra

Errugbia zabaltzen ari da, beraz; baina erronka, orain, emakumezkoen errugbiak ere badu. Maite Ibarra: "Neskek ez dugu aukera gehiegirik kirola egiteko, are gutxiago Ultzaman, gure adinarekin. Aukera hori sortzea eta denborarekin

hemengo neskatek errugbian aritu daitezkeela ikusi dezaten inportantea iruditzen zait". Maika Iraizoz: "Taldean, gaztetxoek 15-16 urte ditu, bi gaztetxo ditugu, eta haiendako bereziki garrantzitsua da, ez daukatelako erreferenterik emakumezkoen senior mailan, mutilen taldea bakarrik ikusi dute. Maila horretara iristen zarenean beste toki batera joan behar duzu edo jokatzeari utzi. Horrelakorik ez baduzu ez duzu etorkizunik ikusten. Askotan gurekin gelditzen dira entrenatzen, ilusioa egiten die helduagoak direnekin aritzea".

Maite Ibarrendako talde kirolan aritzea aberasgarria da: "Neskek bereziki, gimnasia edo zumba, pilates, yoga, horrelakoetan ez bada, askotan, kirola utzi egiten dugu, ez dagoelako jenderik. Eta taldean jokatzeko diren kirolek asko laguntzen dute, baita saretzeko ere..."

Arnasgunea

Oraindik konbentzitu ez bazaituzte, hona hemen izena emateko beste arrazoi potolo bat: giroa. Maite Ibarra: "Giroa oso ona da. Asteburuetan ere bildu ohi gara, mutilek partida dutenean, bereziki, haiek ikusten ditugu eta hirugarren denborara edo poteora batzen gara. Auzolanean ere egon gara, bazkaria egiten, zelaia txukuntzen, baloiak konpontzen, oso-oso giro ona dago, ez bakarrik gure artean, baita mutilen taldearekin ere. Oso-oso ongi hartu gaituzte".

Kirola egiten disfrutatzeaz eta ondorengo giroaz disfrutatzeaz gain, taldeak beste hainbat gauza eskaini die, Maite Ibarrak adierazi digunez: "Baita bailaren arteko harremana eta komunikazioa sustatzea ere. Beti bestan ezagutu ohi dugu elkar, eta hau bada bertze era bat elkar ezagutzeko. Gainera, arnasgunea ere bada, euskaraz entrenatzen dugu eta gure artean euskaraz aritzen gara -Pulunpe: Maika ere ikasten ari da, ezta? - Denak: Bai! (barreak)".

GAUPASAK, 20 URTE

BRT Menditarrek taldeari bere jarduna finantzatzeko izugarri laguntzen dion pesta handia da Errugbi Gaupasa. Udaberrirori egiten da Larraitzarren eta aurtun 20 urte beteko ditu. Maika Iraizoz: "Errugbiak Ultzaman eta inguruan garrantzia badu, mundu guztia joaten baita gaupasara, baina gero nesken talde bat sortu nahi denean, kostatzen da. Zeinen ederra izanen litzateke gaupasara joaten diren horietako batzuk ere taldean eta proiektuan parte hartzera animatzea".

Maialen Marturet: "Eta egun horretan BRT Zirkua izanen da. Entrenamendu eta joko batzuk antolatzen dira haurrek errugbia probatzeko. Ultzamako eta inguruko jendea animatzeko aukera ona izan daiteke, gutxienez haurrentzat probatzeko, eta hemen, etxean, dugu. Gustatzen baldin bazaie, Baztanera!" (barreak). Maika Iraizoz: "Beno, eta gurasoek edo helduek ere probatu nahi badute, hurbildu daitezten". Maite Ibarra: "Partidak ere izanen dira eta guk ere jokatu dugu". Maialen Marturet: "Mutilek eta gero neskek ere. Erakustaldi txikitxo bat eginen dugu".



Korrika eta martxoaren 8a kultur programazioan

Martxoa kultur programazioan eragina duten bi datek markatzen dute: martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna, eta martxoaren 19a, gure eskualdetik Korrika igaroko den eguna.

Martxoak 8

Martxoaren 8a kultur ostiraletan ospatzeko, joan den hilaren 23an TeraPIA-ren antzezlanak izan genuen, Lorena Arangoaren eskutik, Larraintzarko Bentan. Aretoa bete eta bere bakarriketarekin barrea eragitea lortu zuen. Bakarriketan, hainbat emakumeri, esate baterako Mari Domingiri edo Ama Birjinari, ahotsa eman zien, eta istorioaren beste ikuspuntua, emakumeena, kontatu zigun.

Hurrengo ostiralean, Uxue Loizu mendizaleak, eskaladako talde nazionalako kideak, Abrir camino proiektua aurkeztu zigun. Bertan, munduko mendietan eskalatzeko bide berriak nola irekitzen dituzten erakustez gain, alpinismoaren munduan interesa duten neska eta

emakume gazteentzat erreferente bihurtu nahi dute.

Era berean, martxoaren 15ean, Lanzko udaletxean, Laborategi zoroa obra antzeztuko da txikienentzat. Bertan, Einstein edo Marie Curie bezalako pertsonaia historikoen laguntzarekin, emakumeek zientziaren munduan duten papera ikusaraziko da. Hilaren 15ean izango da, 18:00etan.

Azkenik, hilabete osoan Ultzamako Gizarte Etxean Basaburuko Basandereok taldearen eskutik Euskal Emakume borrokalariak erakusketa ikusi ahal izango da, euskal emakume borrokalarietako hainbat esparrutan nabarmendu zirenei buruzko argazki eta testuekin (Remigia Etxarren, Kaxilda Hernaez edo Eva Forest, besteak beste).




Korrika

Korrikari dagokionez, martxoaren 15ean 19.00etan, kasu honetan Larraintzarren, Lander Garro Oihaletxe dokumentala proiektatuko da. Bertan, "Azterketak euskaraz" taldeari omenaldia egiten zaio, Iparraldeko ikasleek ikasketak egin dituzten hizkuntzan (euskaran) egin ahal izan ditzaten.

Horrez gain, kultur programazioa alpinismoari buruzko beste dokumental batekin osatuko da, La voz de Iñaki, non Iñaki Otxoa de Olza mendizalearen figura aurkezten zaigun, etxeko grabazioen, familia filmen eta abarren bitartez. Eta rap kontzertu batekin ere, martxoaren 22an, Erel & Cuñiren eskutik, berriz ere Larraintzarko bentan, 19:00etan.





Neguko zinema

Martxoan igandeko zinemari jarraipena emanen zaio, urtarrilean eta otsailean proiektatutako zortzi saioek izan duten harrera onaren ondoren, negua hilaren 22an amaituko den arte. Eta neguko zineman ere, Korrika eta martxoaren 8a, ordezkatzeko dira: martxoaren 10ean El Cairo 678 ikusi ahal izango dugu, emakume egiptoarren errealitatea erakusten digun filma (bestetik, pasa den martxoaren 3an Foxfire filma bota genuen, non neska nerabe talde batek betiko iraun behar duen itun bat egiten duen: beraiek erabakitako arauen arabera biziko dira, 1955eko Estatu Batuetan). Eta 17an Bizkarsoro ikusteko aukera izango dugu, Josu Martinezen film luzea, Bizkarsoroko biztanleen bost istorio kontatzen dizkiguna. Istorio horiek guztiek badute zerbait komunean: euskaraz bizitzeagatik jazarriak izan diren protagonistak.



Eguzki bideoak

Bestalde, gure liburutegiak bere DVD funtsak handitu ditu dokumentalen sailean, Josu Arteaga Arrasateko idazlearen eta Eguzki Bideoak banatzailearen dohaintzari esker: berrogeita hamar film baino gehiago eman dizkigute gai edo arazo sozialei, ekologismoari, feminismoari, internazionalismoari eta abarri buruz. Adibide bat aipatzearren, lotean Iruñeko Euskal Jai hustearen irudiekin osatutako dokumental bat aurki dezakegu, edo To shoot an elephant dokumentala, 2008an Israelgo armadaren jazarpena jasan zuten Plomo Fundido Operazioari buruzkoa.



Josu Arteagaren azken lana

Azkenean, autore horren liburu bat gomendatu nahi dugu. Liburutegian "Historia universal de los hombres-gato" bere lehen eleberria geneukan, eta orain Memorias de la mar ciega izenburuarekin itzuli da Arrasateko idazlea. Olariz irudizko herria itsaso misteriotso baten ertzean aurkitu dugu orain

 **Patxi Irurzun,**
Utzamako liburuzaina





Agenda, inoiz baino beteagoa

Atal hau eta gure webgunea ezagutzen duzuenok, ongi jakinen duzue bestelako albiste eta edukiez gain, Esan Erran irratiako Egun Ero irratsaioko kolaborazio eta elkarrizketa berezienak nabarmentzeko erabiltzen dugula. Gainera, neguaren garairik gogorrena atzean uzten dugula, agenda hitzorduz bete zaigu!

Pulunpe aldizkariaren eta Esan Erran irratiaren elkargune da, nolabait, amexiti.eus webgunea, eta bi horietako hainbat eduki topatuko dituzue. Arakutzen baduzue, beharbada, zuen gustuko zerbait aurkituko duzue!

Eskualdeko santuak eta genero disidentekak

Historiaren errepaso zorrotza eginen zutela agindu ziguten Mikel Lakastak eta Eneko lurramendik, eta hala egin dute haien irrati kolaborazioan, irailetik hona. Badena eta Eztena izendatu zuten beren tarte hori eta ekarri diguten azkena, eskualdeko santuei buruzkoa izan da. Baina ez pentsa mezako sermoirik bota digutenik, barreari ezin eutsiz osatu genuen kolaborazioa. Entzun!

Entzun Badena eta Eztena, historiaren errepaso zorrotza ▶



Baina, zenbait tokitan ez bezala, denondako tokia badugu gure irratiari. Eskualdeko santuen inguruan hitz egin bezala, genero disidenteen zapalkuntzaz ere aritu gara hilabete honetan. Katak bere musika txokoa hurrengo hausnarketa bota baitu: zer toki dute emakumeek eta genero disidentek oholatza gainean?

Kataren musika txokoa entzuteko, zer toki dute genero disidentek oholatza ▶



Ostiraletan, etxekoak bakarrik ez

Memoriaren Txokoa eta Egun Ero Kantuz tartekatzen ditugu ostiraletan. Alde batetik, Iker Isiegas Aizarozko herritarra eta Beruete Mari Puy Aranok ekarri zizkiguten haien kanta kuttunen zerrendak. Otsailaren 16an etorri zen lehenengoa eta martxoaren 1ean, egutegiari beste orri bat kentzeko, Arano. Webgunean orain arte izan ditugun gonbidatu guztien saioak entzuteko aukera duzue.

Entzun Iker Isiegasen kanta kuttunen zerrenda, Egun Ero Kantuzen ▶



Bestetik, Memoriaren Txokora, Irakeraino joan ginen, otsailaren 15ean 21 urte bete baitziren Estatu Batuek, Britainia Handiak eta Espainiak lagunduta, Irak inbaditzearen kontrako mobilizazioak mundu osoan egin zirenetik..

Irakeko inbasioaren kontrako mobilizaziek 21 urte bete dituzte, Memoriaren txokoa hizpide izan ziren. Entzun ▶





Egunero (eta, Egun Eron) errepaso egiten diegun Argiako efemerideetako bat aukeratu eta sakonean lantzen dugu, ordubetez, ostiraletako Memoriaren Txokoa irratsaioan. Irakekoa izan da azkenekoa, baina etxean ere gelditu ginen otsaileko bestean, intsumisoen borrokari errepasoa egin baitenion.

Irratsaioak, osorik

Kolaborazio gutxi hauekin bakarrik konformatzen ez bazarete gogoratu astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik 11:00etara zuzenean egiten dugun Egun Ero irratsaioak osorik ere entzungai dituzuela webgunean, noski. Eta, kolaborazioekin batera, irratsaioko elkarrietzeta hautatuak ere igotzen ditugu sarera, Errigorako Nafarroako arduraduna den Haizea Lizarberi egin geniona aurkituko duzue, besteak beste.

Eskualdeko agenda

Urtea hasi berri dela ematen badu ere, martxoan sartu gara. Eta negua atzean uzten hasi garen honetan, agenda potolxeago dagoela sumatu daiteke. Gure inguruko

hitzordu guztien berri izateko, sartu amezti.eus/agenda/estekan.

Agenda osorik ikusteko, ameztin



ESAN ERRAN IRRATIA

PULUNPE

AGENDA

ARGAZKI-GALERIAK

ESAN ERRAN EK 25 URTE

> Agenda

2024/02/29 14:30

Oihunzabal Eskola, Basaburua



Korrika kulturala: Ipuin-tailerra, Ana Ibañezekin eta Dani Martirenarekin

TAILERRAK

2024/03/01 19:00

Larrainzarko Bentan, Ultzama



Proiektzioa eta hitzaldia: Bidea irekitzen

PROIEKZIOA

2024/03/02 12:00 - 23:59

Urritzola, Ultzama



Urritzolako ihotekak

BESTAK

Urrezko ezteiak Auzan

Juan den otsailaren 24an ospatu zituzten urrezko ezteiak Jose Maria Villanueva Beratsain eta Pilar Aldaia Iribarrenek, Auzako **Kokotxe**o nagusi eta etxeoandreak. Gauzak zehatz esan behar badira, otsailaren 2an bete zituzten ezkontutako 50 urte.

Goizean, konbidatu guziekin, Auzako elizan meza, Pablo Anduaga **Mekanikoaren** etxeko fraide meza emaile eta sermoigilea izan zelarik.

Mezatik atera eta, Ultzamako Dantza taldean dantzari izan ziren beren hiru seme-alabek dantzatu zieten aureskua. Ustekabeko galanta hartu zuten omenduek elizatarian; zinez opari ederra aspaldiko dantzari bipil haiek eskainitakoa.

Eta bukatzeko, bazkari eder bat ostatuan, soinu jotzaile batez

lagundurik bazkal ondoren dantza eta kantu, giro ederrean amaitzeko. Ez, alaitasuna eta umorea ez ziren falta izan

AMETZaren partez, besarkada bana eta zorionak Joxe Mari eta Pilar! Aunditz urtez!!!!



2024ko urtarrila

2024ko urtarrilean (ilbeltza) gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ANUE Etulain

Nahia Pascal Altuna, urtarrilaren 2an sortua. Gurasoak: Raul eta Cristina.



▲ Nahia, bere familia guziarekin

LANTZ

Martin Ariztegi Lakuntza, ilbeltzaren 8an sortua, Iñaki eta Virginiaren semea.



▲ Martin bizkorra etorri zaigu. Bere anaia Carlasekin

“ Zorionak gurasoei ”

DATU OKERRAK

Azkeneko Pulunpen, Anueko bi heriotzen datak eta urteak jartzerakoan huts egin genuen. Baten datuak besteari jarri genizkion eta alderantziz. Hona hemen ongi jarriak:

Etsain

Juana Maria Zizur Gurbindo, **Legarreko** etxeakoandrea, abenduaren 7an hil zen, 76 urtetan.

Olague

Delia Iraizotz Antzizar, **Perikoneko** alaba, abenduaren 31an hil zen, 68 urtetan.

Pulunpetik bi familiei barkamena eskatzen diegu.

Heriotzak:

BASABURUA Igoa

Angel Martija Lizaso, **Matxinezarreko** nagusia izana, urtarrilaren 17an hil zen, 80 urtetan.



▲ Angel Martija, gazte eta sendo

Udabe

Martin Sala Iribarren, **Kiliminzarreko** nagusia, urtarrilaren 25ean hil zen, 81 urtetan.



▲ Martin Sala

ULTZAMA Eltzaburu

Jesus Etsain Narbaetz, **Etsainen** bordakoa izana, urtarrilaren 28an hil zen, 80 urtetan.



▲ Jesus Etsain

“ Beti izanen zaituztegu gogoan ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



"Grabatzen, grabatzen..."

Laster izanen duzue gure berri.

Esan Erranek, 25!"

